

I. LOMEÑA FACHADAS Bidasoako Maratoi Erdia + 10K RHENUS LOGISTIC

ARAUDIA

AURKIBIDEA

[1. Artikulua- Informazio orokorra](#)

[2. Artikulua- Parte hartzeko baldintzak](#)

[3. Artikulua- Gehieneko denbora, erbiak eta irteera](#)

[4. Artikulua- Izen-Emateak](#)

[5. Artikulua- Dorsalak eta Korrikalariaren poltsa](#)

[6. Artikulua- Zirkuitua](#)

[7. Artikulua- Hornidura puntuak](#)

[8. Artikulua- Dutxa, arroparen zaintza eta aparkaleku zerbitzuak](#)

[9. Artikulua- Mediku-laguntza](#)

[10. Artikulua- Sailkapenak eta sariak](#)

[11. Artikulua- Deskalifikazio-arrazoiak](#)

[12. Artikulua- Parte-hartzaileen eskubideak](#)

[13. Artikulua- Parte-hartzaileen aseguruak](#)

[14. Artikulua- Beste gogoeta batzuk](#)

[15. Artikulua- Irudi-eskubideak eta datuen lagatzea](#)

[16. Artikulua- Informazio grafikoa](#)

1. ARTIKULUA- INFORMAZIO OROKORRA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak, Irungo eta Hondarribiko Udalen laguntzarekin, **I. Lomeña Fachadas Bidasoako Maratoi erdiaren + 10K Rhenus Logistic** lehen edizioa antolatuko du, 2024ko otsailaren 25ko igande goizean.

Irteera, **2024ko otsailaren 25an, igandea, goizeko 9:50etan** izango da 10K lasterketarako eta 10 minuto geroago goizeko **10etan**, maratoi erdiko irteera. **Kolon pasealekuan** dagoen irteera-puntutik. Helmuga, **Urdanibia** plazan izango da, Ibilbidea Hondarribiko herritik igaroko da.

2. ARTIKULUA- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duenak parte hartu ahal izango du, kategoria, sexu, genero edo nazionalitate bereizketarik gabe, atleta federatua izan ala ez. Maratoi erdian parte hartu ahal izateko gutxieneko adina, lasterketaren egunean 16 urte beteta izatea izango da eta 14 urtekoa 10 kilometroko lasterketan parte hartzeko.

Parte-hartzea **maratoi erdian 900 parte-hartzailera** eta **10 kilometrokoan 700 parte-hartzailera** mugatuta izango da.

Parte hartzaile bakoitzak bere erantzukizun osoz parte hartuko du lasterketan eta irteera-lerroan mota honetako probei aurre egiteko behar den maila fisikoarekin aurkeztu beharko da.

3. ARTIKULUA- GEHIENEO DENBORA, LASTERKETAKO ERBIAK ETA IRTEERAREN ANTOLAKETA

Maratoi erdia 2h30eko gehieneko denboran burutu beharko da, 1h10, 10 kilometroko lasterketaren kasuan.

IGAROTZE-DENBORAK

5en Km.	35min
10en Km.	1h10
15en Km.	1h45
20en Km.	2h20
Helmuga	2h30

Korrikalari guztiak igarotze-denborak nahitaez bete beharko dituzte. Bestela, antolakuntzak dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu lasterketaren iraupena aldeztetik planifikatutakoa baino luzeagoa izan ez dadin.

ERBIAK LASTERKETAN

Antolakuntzak erritmo ezberdinetan ibiliko diren erbiak jarriko ditu parte-hartzaileen eskura, hauek 1h20 eta 2h00 arteko helburuak lor ditzaten. Erbiak kolore desberdinetako banderatoak eramango dituzte gainean, non eramango duten erritmo idatzita egongo da, parte-hartzaileentzat erreferentzia izango dena.

Erritmo hauetarako erbiak egongo dira eta bakarrik maratoi erdirako izango dira aurrean:

-	1h20	3:45eko erritmoa, banderato gorria
-	1h25	4:00eko erritmoa, banderato laranja
-	1h30	4:15eko erritmoa, banderato beltza
-	1h35	4:30eko erritmoa, banderato horia
-	1h40	4:45eko erritmoa, banderato arrosa
-	1h45	5:00eko erritmoa, banderato berdea
-	1h50	5:15eko erritmoa, banderato urdina
-	2h00	5:45eko erritmoa, banderato morea

IRTEERAREN ANTOLAKETA

Lehenengo irteeran, 10k – takoa, 5 irteera-eremu izango dira:

CAJÓN	TIEMPO
	< 38min
	38 min eta 42min30 artean
	42min30 eta 47min30 artean
	47min30 eta 52min artean
	> 52min

Bigarren irteera, Maratoi Erdikoa, 10 minuto beranduago izango da, eta 5 irteera-eremu berberak erabiliko ditugu:

CAJÓN	TIEMPO	ERBIAK
	< 1h20	
	1h20 eta 1h30 artean	1h20 eta 1h25
	1h30 eta 1h40 artean	1h30 eta 1h35
	1h40 eta 1h50 artean	1h40 eta 1h45

	> 1h50	1h50 eta 2h00
--	--------	---------------

Antolakuntzak jarritako erbiak, irteeran bakoitza bere irteera gunean ipiniko da, korriko duten erritmoaren arabera.

Bi lasterketen korrikalariei, irteera eremu bat esarriko diogu inskripzioan jarritako denboraren arabera. Antolakuntzak jarritako datuak kontrastatu ditzake eta horren arabera, korrikalariak gure iritsiz merezi duen irteera eremuan jarri ditzakegu.

Atletak lasterketa hasiera baino 5 minuto lehenago gehienez, bere irteera-eremuan egotea eskatzen dugu.

4. ARTIKULUA- IZEN-EMATEAK

Izen-emateak <http://www.mediamaratonelbidaso.com> webgunean, **2023ko azaroaren 22ean** irekiko dira eta epea **2024ko otsailak 23an, 13:00etan** amaituko da. Otsailaren 15a baino lehen izena ematen dutenentzat, dortsalean bere izena ageriko da. Izen-emateak edozein kasutan gehieneko parte-hartzaile kopurura iritsi bezain laster itxiko dira (900, 21K eta 700, 10K). **Probaren egunean bertan, irteera gunean izena emateko aukerarik ez da izango.**

Aurrez aurre izena eman nahi dutenek Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoetan egin ahal izango dute, Leandro Agirretxe plazako 1 zenbakian, 2. solairuko 8en bulegoan, 9:00etatik 14:00etara. ([Palmera Montero Gunea](#)).

Itzulketak-politika: Azkenean parte hartu ezingo dutenek izen ematearen titulartasuna aldatu ahal izango dute. Titulartasun aldaketa ekitaldiaren webgunean prestatutako [Parte-hartzailearen Gune Pribatuan](#), otsailaren 15ko 23:59ak arte egin ahal izango da. Izen ematearen zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko. Hori bai, maratoi erdian izena emandakoak, bere dortsala 10K-ko lasterketarako aldatzea eskatu ahal izango dute. Aldaketa horrek ez du inolako kosturik izango, baina aldi berean, tarifen arteko aldea balego ez litzateke itzuliko.

Izena ematearen prezioa honela aldatuko da:

IZENA EMATEKO EPEA	MARATOI ERDIA	10K
Lehen 100 izen emateak	20€	15€
300en izen ematera arte edo 2022/12/31 baino lehen	24€	
Kuota Orokorra	28€	18€
Azken asteko izen emateak, 2023/02/20tik aurrera	32€	22€

Maratoi erdiko korrikalari leialenentzat deskontuak egongo dira (5 edizio edo 4 edizio amaitu dutenentzat), 10 parte-hartzaile edo gehiagoko taldeentzako eta probaren egunean 27 urtetik beherakoentzat.

Donostiako Udaberriko lasterketa egiteko 25%ko deskontua izango dute, **I. Lomeña Fachadas Bidasoako erdi Maratoia + 10k Rhenus Logistic** lasterketa egiten dutenak. Inskripzioaren konfirmazioko mailean deskontu kodigo bat jasoko dute Udaberriko lasterketara inskribatzeko. Kode hau erabilgarria izango da 2024ko Urtarillaren 1etik aurrera, lasterketarako inskripzioak irekitzen duten egunean.

Azkenik, promozio berri bat daukagu running-eko zapatilla berri batzuk erostean Deportes Gonzalezen, 99€ baino gehiago balio dutenak, eta deskonturik ez dutenak, Bidasoako Erdi Maratoirako edo 10k-rako inskripzioa dohain izango du. Promozio hau 100 unitatentzat da baliagarria eta frogara inskribatuta ez daudenentzat da. Inskribatua izanez gero, ez dugulako deboluziorik egingo.

5. ARTIKULUA- DORTSALAK ETA KORRIKALARIAREN POLTSA

Dortsala eta korrikalariaren [Deportes Gonzalez](#) (Ondarribi'ko karrika s/n, 20301 Irun) honako egun eta ordutegitan:

OSTEGUNA OTSAILAK 22 16:00 – 20:00
OSTIRALA OTSAILAK 23 10:00 – 13:00
OSTIRALA OTSAILAK 23 DE 16:00 – 20:00
LARUNBATA OTSAILAK 24: 10.00 - 13.00
LARUNBATA OTSAILAK 24: 16.00 - 20.00

Dortsala jasotzeko, izena ematearen egiaztagiria, bai formatu digitalean, bai paperean inprimatuta aurkeztu beharko da. Egiaztagiri hori izena ematerakoan baliatutako posta elektronikoan jasoko du parte hartzaileak, nahiz eta [Izen-emateak Egiaztatzeko Eremuan](#) uneoro bertsio eguneratua deskargatzeko aukera izan.

Izena ematearen egiaztagirian QR kode bat agertzen da. Dortsala jasotzerakoan kode hau eskaneatuko da. Dagokion egiaztagiria aurkeztuz, beste parte hartzaile baten dortsala eta poltsa jaso ahal izango dira. Izena ematearen egiaztagiria aurkeztzen ez bada, parte hartzailearen dortsala eta poltsa, NANA edo argazkidun nortasun-agiri bat aurkeztu ondoren, dortsalaren jatorrizko titularrari bakarrik emango zaio.

Aldez aurretik jasotzen ez diren dortsal guztiak zuzenean irteera-gunean, 8:00etatik 9:30era Uranzu Frontoian jasoko dira. Irteera-gunearen kokapena honako esteka honetan ikus daiteke: <https://bit.ly/MMB2024>.

Korrikalariaren poltsak dortsal txip-a (Otsailak 7a baino lehen izena-ematen dutenentzat dortsalean bere izena ageriko da), kateorrazak, lasterketaren kamiseta teknikoa, laguntzaileen hainbat produktu eta eskaintza, lasterketaren eta zerbitzuen informazioa, kontsignarako zinta itsasgarria, etab. izango ditu barne.

6. ARTIKULUA- ZIRKUITUA

Bi ibilbideak, bai maratoi – erdia eta baita 10K –koa RFEA-ren homologazioa izango dute eta trafikoari itxita egongo dira. Beraz, atleta federatuentzat, lasterketan lortutako markak guztiz baliagarriak izango dira eta rankinean agertuko dira.

Horretarako, kirolari federatuek bere klubaren ekipazioarekin korritu behar dute eta deialdi gunetik pasa beharko dute lasterketa hasieraren aurretik, epaileek bere konprobazioak egiteko eta beraien eskuetan jarriko dira, frogaren garapen egokia bermatzeko

Zirkuituaren eta gune logistikoei buruzko informazio guztia esteka honetan aurki daiteke: <https://bit.ly/MMB2024>

Ibilbide osoan zehar bai puntu kilometrikoak, bai zerbitzu desberdinak, hala nola hornidura-postuak, komunak, zerbitzu medikoak, dortsalak jasotzeko puntua, kontsigna-zerbitzua, duxak, etab. argi eta garbi seinalizatuta egongo dira. Nolanahi ere, lasterketaren ibilbidea eta zerbitzu guztien kokapena honako esteka honetan aldez aurretik kontsultatzea gomendatzen da: <https://bit.ly/MMB2024>

7. ARTIKULUA- HORNIDURA PUNTUAK

5 hornidura-puntu jarriko dira korrikalarien eskura, 2 10K lasterketarako, gutxi gorabehera 3,2 – 7,5 – 11,8 – 14,9 (3,8 10K-rako) eta 18,4 (7,3 10K-rako) kilometroetan gutxi gorabehera. Era berean, helmugan hainbat postu egongo dira eta bertan parte-hartzaile guztiek hornidura osoa jasoko dute.

Hurrengo estekan beste informazio askoren artean, hornidura-postuen kokapen zehatza ikus daiteke: <https://bit.ly/MMB2024>

8. ARTIKULUA-DUTXA, ARROPA ZAINZA ETA APARKALEKU ZERBITZUAK

Dutxak eta aldagelak helmugatik gertu kakatua dagoen [Uranzu pilotalekukoak](#) izango dira.

Arropa uzteko zerbitzua Uranzu pilotalekuan, non dutxak eta aldagelak kokatuak dauden, egongo da. Motxilak goizeko 8:30etan biltzen hasiko dira. Kontsigna-puntuaren kokapen zehatza esteka honetan aurki daiteke: <https://bit.ly/MMB2024>

Dortsalari atxikita, motxila identifikatzeko dortsalek bereizi beharko den zinta itsasgarri bat egongo da. Motxiletan balio-elementuak bai eta manipulazioan hautsi daitezkeen elementu hauskorak ez uztea eskatzen da.

Autoz joan behar direnentzat, Ficobako parkinean kotxea uztea gomendatzen dizugu. Era berean, irteeraren eta helmugaren inguruan, Kolon pasealekuko, San Juan plazako eta Pio XII.aren plazako ordainpeko parkinak daude. Hauen kokapena honako esteka honetan ikus daiteke: <https://bit.ly/MMB2024>

9. ARTIKULUA- MEDIKU-LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku-laguntza egongo da. Helmugan ere laguntza medikoa egongo da. Antolatzaileek probaren aurretik korrikalariei azterketa mediko bat egitea gomendatzen die. Edonola ere parte-hartzaile guztiak kirol-jardueratik eratorritako arriskua onartu beharko dut. Medikuzerbitzu ofizialak lasterketatik parte hartzaile bat erretiratzeko ahalmena izango du, bere ustez, korrika jarraitzeko baldintza fisiko edo psikikoetan betetzen ez badira. Medikuzerbitzuen kokapen zehatza honako esteka honetan kontsulta daiteke: <https://bit.ly/MMB2024>

10. ARTIKULUA- SAILKAPENAK ETA SARIAK

Probaren egunean, hurrengo estekan edo lasterketaren webgunetik, <http://www.mediamaratondelbidasoa.com>, emaitzak zuzenean jarraitu ahal izango dira: <https://rebrand.ly/MedialrunLive>.

Sailkapenean agertu ahal izateko, dortsala maratoni erdiko edo 10K-koa den hartuko da kontuan. Dagokien distantzia osatzeko bitarteko alfonbra guztietatik igaro beharko dute korrikalariek. Derrigorrezkoa izango da [3.en artikuluan](#) ageri diren bitarteko eta helmugako denborak betetzea.

Sailkapenak lasterketan emandako denbora GORDINAREN arabera egingo dira. Hau da, irteeratik korrikalaria helmugako kronometrajetik igaro arte igarotako denbora. Korrikalari bakoitzak emandako denbora NEROA ere emango da, baita 5, 10, 15, 20 kilometroetan eta helmugan denbora partzialak ere.

SAILKAPENAK

10K eta 21K-ko lasterketan bereiztutako sailkapenak egongo dira. 10K-ko lasterketak gizon eta emakumeentzat sailkapen orokorra izango ditu. Maratoni erdiak aldiz, gizonetako eta emakumetako sailkapen orokorraz gain maila ezberdinetarako sailkapenak izango ditu:

MAILA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
23 URTEZ AZPIKOAK	2002/01/01etik 2008/02/26ra	2002/01/01etik 2008/02/26ra
MASTER 45 +	1979/02/26 baino lehen jaioak	1979/02/26 baino lehen jaioak

SARIAK

MARATONI ERDIA: Lehen bostek eta 23 urtez azpiko eta Master 45+ mailetako lehen sailkatuek jasoko dituzte sariak.

- | | |
|--------------------------------|--|
| 1. Gizonezkoak/ Emakumetzkoak | Txapela + Garaikurra + 200€ eskuan + 100€ Deportes Gonzalezen + 300€ eskuan marka hauek egitea lortuz gero 1h05'/1h16' (mutila/neskak) |
| 2. Gizonezkoak/ Emakumetzkoak | Garaikurra + 150€ eskuan + 75€ Deportes Gonzalezen |
| 3. Gizonezkoak/ Emakumetzkoak | Garaikurra + 100€ eskuan + 50€ Deportes Gonzalezen |
| 4-5 Gizonezkoak/ Emakumetzkoak | Garaikurra |

Maratoni erdian, maila ezberdinetan sariak jasotzeko hautagai diren korrikalariak, sariak metatzeko aukera izango dute.

10K: 10 kilometroko lasterketaren lehen hirurek jasoko dute garaikurra.

- | | |
|------------------------------|--------------------------------------|
| 1. Gizonezkoak/ Emakumezkoak | Garaikurra + 50€ Deportes Gonzalezen |
| 2. Gizonezkoak/ Emakumezkoak | Garaikurra + 40€ Deportes Gonzalezen |
| 3. Gizonezkoak/ Emakumezkoak | Garaikurra + 30€ Deportes Gonzalezen |

11. ARTIKULUA- DESKALIFIKAZIO-ARRAZOIAK

Irteeran eta 5 kilometrotik behin helmugaraino denbora kontrolak egongo dira. Parte hartzaile guztiak nahitaez kontrol puntu hauek igaro beharko dituzte.

Honako hauek lasterketatik automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa egiten ez dutenek.
- Dortsalaren publizitatea aldatu edo ezkutatzen dutenek.
- Beste parte-hartzaile bati esleitutako dortsala edota txipa eramaten dutenek.
- Edizio honetako jatorrizko dortsala eramaten ez dutenentzat.
- Dortsalarik gabe helmugan sartzen direnentzat.
- Epaileen, osasun-langileen edo antolakuntzako kideen jarraibideei kasurik egiten ez dutenek.
- Era berean, gogoratu arazten da zirkuituaren barruan ibilgailu motordunak edo antolakuntzatik kanpoko bizikletak erabat debekatuta daudela.

Deskalifikatutako parte-hartzaileek sarituak izateko aukera guztiak automatikoki galduko dituzte.

12. ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEEN ESKUBIDEAK

Ofizialki izena emanda dauden eta lasterketaren dortsal ofizial eta originalaren bidez hala dela egiaztatzen duten parte-hartzaileek, bularrean jarrita eraman beharko dute, tolestu, aldatu edo manipulatu gabe, eta une oro izango dute eskubidea lasterketako edozein zerbitzuez gozatzeko, bai ibilbidean zehar, bai helmugan, hala nola hornidura, osasun-laguntza eta abar.

Antolakuntzak ez die inolako arretarik edo zerbitzurik emango aurreko baldintza betetzen ez duten pertsonen edo lasterketan dortsalik gabe edo horrekin faltsututa parte hartzen dutenei, eta lasterketatik kanporatuko ditu, haien presentzia hautemateko unean eskura dituen baliabideen bidez.

13. ARTIKULUA- PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA

Erakundeak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izango du, indarrean dagoen legediaren arabera. Ofizialki inskribatutako parte-hartzaile guztiek, halaber, istripuen aurkako aseguru-poliza bat izango dute. Poliza horrek proba garatzearen ondorioz gertatzen diren istripuak estaliko ditu, eta inoiz ez ezkutuko pairamen edo tara, zuhurtziagabekeria, zabarkeria, araudiko legeak eta artikulak ez betetzea, bai eta lasterketa egiten den lekura eta handik egiten diren joan-etorrietan gertatzen direnak ere.

14. ARTIKULUA- BESTE GOGOETA BATZUK

Antolakuntzatik kanpoko ezinbesteko arrazoiengatik (ekaitzak, lurrikarak, eraso terroristak, pandemiak, etab.) lasterketa bertan behera gelditzen bada, izen-emateen dirua ez da itzuliko. Kaltetuei hurrengo edizioan izena emateko baldintza onuragarriak eskainiko zaizkie.

Antolatzaileek aurreikusitako ibilbidea segurtasun-arrazoiengatik uneoro alda dezake.

15. ARTIKULUA– IRUDI-ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGAPENAK

Parte hartzaile guztiek, izen-emateagatik, araudi hau ezagutzen eta onartzen dutela adierazten dute, eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak informatikoki eta kirol-, informazio-, sustapen- edo merkataritza-izaerako helburu eskusiboarekin bere datu pertsonalak, baita argazkien, bideoen eta abarren bidez probaren barruan duen irudia ere, trata ditzan.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, parte-hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea baliatu ahal izango du, haren edukia partzialki edo osorik zuzentzeko edo ezerezteko. Eskubide hori baliatzeko, idatziz eskatu beharko dio Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialari. (Ramón Iribarren kalea 4, behea, 20304 Irun).

Erakundeak beretzat gordetzen du erregelamendu honetan aldaketaren bat egiteko eskubidea, egoki irizten badio, eta jendaurrean jakinarazi beharko du, bai probaren webgunean, bai izena emateko plataforman.

Araudi honetan aurreikusi ez den guztia RFEA-ren eta World Athletics-en (Iraganean IAAF) 2023 denboraldirako Lehiaketa Arau Orokorren arabera arautuko da.

16. ARTIKULUA- INFORMAZIO GRAFIKOA

Ibilbideari, erantsitako guneei eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua, honako esteka honetan eskuragarri dago: <https://bit.ly/MMB2024>